

POS-C09

*PD en Psicología***EZEGONKORTASUN SOZIAL KRONIKOAREN ERAGINA SAGU EMEETAN: JOKABIDEA, ZITOKINA ETA GR HARTZAILEEN ESPRESIOA ETA GARUNEKO AKTIBITATE MONOAMINERGIKOAK**

Ainitze Labaka Etxeberria Larraitx Garmendia Rezola Eneritz Gómez Lázaro

1- Euskal Herriko Unibertsitatea 2- Eusko Jaurlaritza

Azken urteetako ikerketan arabera, hantura prozesuak eta zitokinek harreman zuzena dute estresarekin lotutako nahasteen patogenesisian, antsietatea eta depresioa kasu. Gauza jakina da hantura erantzun fisiologiko hori ezberdina dela emakume eta gizonetan, ziurrenik ekintza monoaminergikoa dela medio. Gainera, gaixotasun horien prebalentzia bi bider handiagoa da emakumeetan. Hala eta guztiz ere, esparru horretako ikerketa gehienak animalia errekin soilik gauzatu dira, eta emaitzak bi sexuetara zabaldu gero. Era berean, animalia estres erreduak errekin eta arrentzako diseinatuak dira, eta oraindik erabat balioetsi ez bada ere, ezegonkortasun sozial kronikoaren estresa da emeetan aplika daitekeen estres sozial bakarra. Hori dela eta, lan honetan sagu emeen zenbait garun ataletako aktibitate monoaminergikoa eta zitokina pro- eta antiinflamatorioen espresioa aztertu ditugu, baita Hipotalamo-pituitario-adrenal (HPA) ardatzeko aldaketak eta ezegonkortasun sozial kronikoaren estresak eragindako jokabide aldaketak ere. Emaitzek adierazi dutenez, sagu estresatuek odoleko kortikosterona maila altuagoak eta hipotalamoko GR (hartzaile glukokortikoide) maila baxuagoak zituzten kontrolen aldean, HPA ardatzaren aktibitate handiago baten adierazgarri. IL-6 eta TNF- α zitokina proinflamatorioen mailetan ez zen ezberdintasunik aurkitu, bai ordea IL-10 zitokina antiinflamatorioaren espresio murriztagoa eta aktibitate serotoninergiko eta dopaminergiko handiagoak ere. Behartutako Igeriketa frogan eskalatze jokabidea luzaroago mantentzen zuten estresatuek. Datu horrek, aktibitate noradrenergiko eta serotoninergikoarekin batera, antsietatea adieraz dezake. Hitz gutxitan, lortutako datuek estresaren inpaktu biologikoa eta jokabidezkoa adierazten dute, immunitate sistemaren eta jokabidearen arteko lotura konplexua argitara emanez, eta emeen fisiologiaren gainean zientziak duen hutsunea poliki betez.